BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA SAILA

5452

EBAZPENA, 2011ko urriaren 6koa, Eusko Jaurlaritzako Kiroletako zuzendariarena, Euskal Motoziklismo Federakuntzaren estatutuetan egindako aldaketak onartu eta EAEko Kirol Erakundeen Erregistroan inskribatzen dituena.

1986-04-30ean, 93. zenbakiarekin, EAEko Kirol Erakundeen Erregistroan inskribatutako Euskal Motoziklismo Federakuntzak estatutuak berriro idatzi ditun.

Euskal Motoziklismo Federakuntzak, 2011ko urtarrilaren 22an egindako Ezohizko Batzar Orokorrean bere estatutuak onartzeko erabakia hartu zuen, eta onarpen hori agiri bidez frogatu da.

Aldaketa hori bat dator Urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuan eta Euskadiko Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legean xedatutakoarekin.

Ondorioz, nire eskumenak erabiliz

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Euskal Motoziklismo Federakuntza Federazioaren Estatutuen 4 artikuluan aldaketa onartu eta EAEko Kirol Erakundeen Erregistroan inskribatzea. Artikulu hori honela idatzita gelditzen delarik:

«4. artikulua.– Federakuntzaren egoitza helbide honetan dago: Donostia-San Sebastián, Errotaburu P, 1-9, 20018 PK».

Bigarrena.– Legez ezarritako epean jakinarazteko agindua ematea.

Hirugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka, administrazio-bidea amaitzen du eta, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke Kiroletako zuzendariari hilabeteko epean, ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera. Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ere aurkeztu ahal izango zaio EAEko Auzitegi Nagusiari, jakinarazten den egunetik bi hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko urriaren 6a.

Kiroletako zuzendaria,
JUAN FRANCISCO MUTILOA ALDAZABAL.